



## Elorrioko udala

Gernikako Arbola Plaza  
48230 Elorrio-Bizkaia  
Tel: 946 582 712  
Faxa: 946 583 287  
www.elorrio.net

### Elorrio

#### FERIXA NAUSIKOAK 09 KARTEL LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Partaide bakoitzak nahi beste kartel aurkeztu ahal izango du, baldin eta kartelok beste lehiaketaren batean sarituak izan ez badira.
2. Kartelaren neurria 70/40 cm-koa izango da.
3. Egileak nahi duen teknika erabiliko du.
4. Kartelean – Ferixa Nausikoak 2009 – Elorrio – irailak 4-13 testua derrigorrez agertu behar da.
5. Lana euskarri digitalean (photoshop programarekin formatu bateragarria) eta luma paperean inprimatuta aurkeztuko da.
6. Luma paperean inprimatutako kartela eta CD-a Elorrioko Udaleko erregistroan aurkeztuko dira sinatu gabe. Horiekin batera, gutunazal itxi bat entregatuko da eta barruan honako datuak jasoko dira: izena, bi abizen, helbidea eta harremanetarako telefono zenbakia. Paperean, CD-an eta gutunazalean egileak aukeratutako leloa baino ez da agertuko. Ez da agertuko identifikatzeko balio duen daturik.
7. Lanak aurkezteko epea 2009ko ekainaren 30eko 14:00etan amaituko da.
8. Kartel irabazlearen aukeraketa.
  - a. Herri-epaimahaia. Aurkeztutako lan guztiak Iturri Kultur Etxeko sarreran ikusgai egongo dira uztailaren 1etik 15era bitartean eta nahi duen guztiak botoa emateko aukera izango du.
  - b. Epaimahai teknikoa. Udaletxeko eta jai-batzordeko kideek eta arte grafikoetako profesionalak osatuko dute. Kartel irabazlea epaimahai honek hautatuko du herri-epaimahaiaren botoak kontuan hartuta.
9. Erabakia apelaezina izango da eta uztailaren 18an argitaratuko da udaletxeko iragarki-oholean, eta ondoren, udalaren web orrian. Saria hutsal deklaratu ahal izango da.
10. Elorrioko Udalak kartel irabazlearen kopiak egiteko, argitaratzeko edota erakusteko eskubideak gordetzen ditu beretzat.
11. Kartel irabazlea jaietako kartel legez zein esku-programaren azalean erabiliko da. Epaimahaiak kartelaren behar bezalako irudikapena bermatzeko aldaketak iradoki ahalko dizkio lehiakideari. Aurkeztutako gainontzeko kartel guztiak ere jaietako esku-egitarauan argitaratuko dira.
12. 500 euroko saria eskuratuko du irabazleak.
13. Saririk gabeko lanak Uztailaren 18tik irailaren 6ra bitartean jaso beharko dira Iturri Kultur Etxean. Epe hori igarota, ez da lanik bueltatuko. Antolatzaileek ahalik eta arretarik handienaz zainduko dituzte lanak, baina ez dira erantzule izango galdu edo narriatuz gero.
14. Lehiaketa honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarriak erabat onartzea.